



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Donostia, 2025eko otsailaren 25

Kristogan anaia eta arreba zaituzten maite-maiteok:

Aita Santuaren osasuna oraindik kritikoa bada ere, badirudi azken orduetan zertxobait hobetu dela. Hala eta guztiz ere, albisteak pozgarriak badira ere, gure eginbeharra da, fede-elkarte gisa, Pedrori gure otoitzekin eustea.

Hori dela eta, berriro ere elizbarrutira jotzen dut, Arrosario Santuaren otoitzean Aita Santua lehenbailehen berreskuratzearen alde otoitz egiteko ahal eta nahi duten guztiei dei egiteko, Salus infirmorum deturapean ezagutzen dugun Ama Birjinaren eskuhartzea eskatzeko, eriondoak dirauen bitartean.

Bihartik aurrera, asteazkena, arratsaldeko 18:30etan, Artzain Ona Katedralean 19:00etako meza baino lehen errezatzen den Arrosario Santuak asmo berezi hau izango du. Ekimen honetan parte hartzera animatzen zaituztet, bai aurrez aurre, bai zuen etxeetatik Vatikanotik 21.00etan eskeintzen den otoitzarekin bat eginez, elizbarrutiko Eliza gisa, Jaunari gure Aita Santu Frantziskoren osasunaren alde aho bateko erregua egin diezaiogun.

Beraz, Ama Birjina Santuaren, Elizaren Amaren eta "Gaixoen Osasunaren" laguntzarekin fidatzen gara, Aita Santuari bere errekupeazioan lagun diezaion eta fedearen bidean gidatzen jarraitzeko behar duen indarra eman diezaion.

In Corde Matris

+ Fernando Prado Ayuso
Donostiako gotzaina